




Estibalditz Ezkerra

XX. mendeko euskal literatura

Literatura vasca del siglo XX ■ Basque Literature in the Twentieth Century





Estibalitz Ezkerra

XX. mendeko euskal literatura

Literatura vasca del siglo XX ■ Basque Literature in the Twentieth Century

EUSKAL HERRIA
PAÍS VASCO
BASQUE COUNTRY

Euskal Kultura Saila

Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series

- 1 Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language
- 2 **XX. mendeko euskal literatura** / Literatura vasca del siglo XX / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / Música clásica vasca / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La canción vasca: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 Estanpa bilduma / Colección de estampas / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cine vasco / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Arquitectura y diseño / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danza vasca / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / El bertsolarismo / Bertsolaritza
- 10 Tradizioak / Tradiciones / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / Sobre cocina vasca / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Teatro vasco / Basque Theater

Euskal Kultura Sailaren editorea

Editora de la Colección Cultura Vasca

Basque Culture Series Editor:

Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texto / Text:**

Estibalitz Ezkerra

© **Traducción al castellano:**

Estibalitz Ezkerra

© **Translation into English:**

Cameron Watson

© **Diseinua / Diseño / Design:**

Tiktak multimedia

© **Azala / Portada / Front Cover**

Tiktak multimedia

Inprimatzalea / Imprime / Printed by:

Gráficas Dosbi

L.G. / D.L. / L.D.: VI-579/2012

ISBN: 978-84-614-9764-5

Etxepare Euskal Institutua

Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute

Prim 7, 1

E- 20006 Donostia-San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “Euskara, jalgi hadi mundura”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat. Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzaileak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak... Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, se publicó el primer libro en euskara *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare, quien formuló un deseo: “Euskara, jalgi hadi mundura” (Euskara, muéstrate al mundo).

El Instituto Vasco Etxepare toma su nombre de este primer autor vasco, y convierte, además, su deseo en nuestro lema. Siendo el objetivo y la misión del Instituto la de promocionar y difundir la lengua y la cultura vasca por todo el mundo.

Por un lado, es nuestra tarea fomentar el conocimiento sobre nuestra lengua, y su aprendizaje en el ámbito académico. Y por otro, queremos dar a conocer internacionalmente las manifestaciones artísticas de nuestros creadores: artistas plásticos, músicos, bailarines, escritores, directores de cine, actores, etc.

Una de las primeras tareas en la internacionalización de nuestra lengua y cultura ha sido crear esta colección con el objetivo de informar sobre nuestro idioma, el euskara, y sobre todas las disciplinas artísticas y culturales que conforman la riqueza de nuestra cultura.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute's objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

Directora del Instituto Vasco Etxepare

Director of the Etxepare Basque Institute

Aurkibidea

Índice ■ Index

Sarrera Introducción Introduction	6
Euskal edo euskarazko literatura Literatura en euskera Literature in Basque	8
Beste hizkuntzetan egindako literatura Literatura vasca en otras lenguas Basque Literature in Other Languages	68
Bibliografia / Bibliografía / Bibliography	86
Argazkiak / Fotografías / Photographs	87
Estibalitz Ezkerra	88

Estibalitz Ezkerra

Sarrera

Introducción ■ Introduction

Historia labur honen helburua¹ XX. mendeko Euskal Herriko literaturaren garapenari begira esanguratsuak izan diren gertakariak eta izenak aipatzea da. Euskal Herriko² zein euskal jatorriko idazleek beren hizkuntzetan, euskara, gaztelera, frantsesa eta inglesa, ekoizturiko literaturari deritzogu Euskal Herriko literatura. Lehen atalean, euskarazko ekoizpena izango dugu hizpide; ondoren, gainerako hizkuntzetan egindako literaturari helduko diogu.



Gabriel Aresti



Bernardo Atxaga

¹ Testu hau Maria Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi eta Estibalitz Ezkerrak www.basqueliterature.com atarirako idatzitako artikuluetan oinarrituta dago.

² Testuan penintsulako Euskal Herria edo Euskal Herri penintsularra izendapena erabili dugu Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Komunitate Forala izendapenen ordez, eta kontinenteko Euskal Herria edo Euskal Herri kontinentala Akitania eskualdeko euskal probintzien kasuan.

El objetivo de esta breve historia¹ es señalar los acontecimientos y nombres más relevantes con respecto al desarrollo de la literatura vasca a lo largo del siglo XX. Por literatura vasca entendemos la literatura producida por autores vascos –tanto del País Vasco peninsular como del continental²– o de origen vasco en sus diferentes lenguas: el euskera, el castellano, el francés y el inglés. En primera instancia repasaremos la producción en euskera para después dar paso a la literatura escrita en otras lenguas.

The goal of this brief history¹ is to highlight the main events and most important names associated with the development of Basque literature through the twentieth century. We take Basque literature to mean the literature created by Basque authors –from both the continental and peninsular Basque Country²– or authors with Basque roots in different languages: Basque, Spanish, French and English. First we will look at literary production in Euskara (Basque) and then we will address literature written in other languages.



Arantxa Urretabizkaia



Laura Mintegi



Arantxa Iturbe



Lourdes Oñederra

¹Este texto está basado en los artículos elaborados por María Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi y Estibalitz Ezkerra para el portal www.basqueliterature.com.

²Por País Vasco peninsular entendemos la Comunidad Autónoma Vasca y la Comunidad Foral de Navarra, mientras que el País Vasco continental se refiere a las provincias vascas de la región de Aquitania.

¹This text is based on articles by María Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi and Estibalitz Ezkerra for the website www.basqueliterature.com. Where applicable, published English-language translations of works mentioned are added in parentheses.

²The peninsular Basque Country refers to the Basque Autonomous Community and the Foral Community of Navarre, while the continental Basque Country refers to the Basque provinces in the Aquitaine region.

Euskal edo euskarazko literatura

Literatura en euskera

Literature in Basque

Hastapenetan eliz munduari eta hezkuntza erlijiootsuari loturik egon bazen ere, XIX. mendetik aurrera euskarazko literaturak bestelako norabidea hartu zuen nobela bezalako generoei ongi etorria emanenez (Mitxelena 141). Aipatu mendean bost nobelek bakarrik argia ikusi bazuten ere (Lasagabaster 1981: 348), erronka handia suposatu zuen horrek bestelako joerei atea ireki zielako. Dena den, XX. mende erdialdera arte itxaron beharko dugu euskal literatura jarduera autonomo izan dadin euskal gizartean. Euskal nobelaren aurrekarien artean Juan Antonio Mogelen (1745-1804) *Peru Abarka* dugu, 1802rako osatua baina 1880ean argitaratua. *Peru Abarka* beraren eta Maisu Juanen arteko solasaldia du oinarri, eta helburu didaktikoarekin idatzita dago: euskotar ilustratuak euskararen purutasunaz eta balioaz konbentzitu nahi ditu lanak. Aipatu beharreko beste bilan dira Jean Baptiste Elizanbururen (1828-1891) *Piarres Adame* (1888), atalka argitaratua *La Nivelle* eta *Le Reveil Basque* aldizkari errepublikarretan, eta Resurrecion Maria de Azkueren *Bein da betiko* (1893) aldizkarian, zein Bizenta Mogelen (1782-1854) *Ipuin onak* (1804), emakume batek argitaraturiko lehen lana, Esoporen fabulen moldaketa.

XIX. mendeko azken herenean, Bigarren Gerra Karlistaren ostean, Antonio Canovas del Castillok foruak ukatu zituen. Euskararen oraina eta geroa foruei lotu zitzuten hainbatek, haien artean Juan Ignazio Iztuetak (1767-1845), zeinak *Guipuzcoaco provinciare condaira edo historia* (1847) adierazi zuen: "Euscara ill esquiero Fueroac ez dira bicico; banan Euscara bici bada, Fueroac piztuko dira" (Madariaga 159). Zentzu horretan, ez da harritzeko 1876an euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, *Pizkundea* bezala ezaguna, agertu izana, Kataluniako *Renaixença* zein Galiziako *Rexurdimento* mugimenduen pareko. Alemaniako filosofo idealisten espiritu errromantikoaren ildotik euskaraz idatzitako literatura euskal arimaren islatzat jotzen hasi ziren, lehenengoaren helburua zelarik bigarrena babestea eta sustatzea.

Si bien en sus comienzos la literatura vasca en euskera estuvo ligada al mundo eclesiástico y a la educación religiosa, a partir del siglo XIX la misma tomó otro rumbo dando la bienvenida a géneros como la novela (Mitxelena 141). Aunque en dicho siglo sólo vieron la luz cinco novelas (Lasagabaster 1981: 348), ello supuso un hito ya que abrió las puertas a otras tendencias. De todas maneras, hubo que esperar hasta mediados del siglo XX para que la literatura en euskera pasara a ser una actividad autónoma dentro de la sociedad vasca.

Entre los predecesores de la novela en euskera se encuentra la obra *Peru Abarka* de Juan Antonio Mogel (1745-1804), finalizada en 1802 y publicada en 1880. Esta obra se basa en el diálogo que mantienen el propio Peru Abarka y Maisu Juan, y está escrita con un claro objetivo: convencer a los ilustrados vascófilos de la pureza y valor del euskera. Cabe reseñar otras dos obras, *Piarres Adame* (1888) de Jean Baptiste Elizamburu (1828-1891), publicada por entregas en las revistas republicanas *La Nivelle* y *Le Reveil Basque* y en la dirigida por Resurrección María de Azkue *Bein da betiko* (1893); así como *Ipuin onak* (1804) de Bizenta Mogel (1782-1854), adaptación de las fábulas de Esopo además de ser el primer trabajo publicado por una mujer.

En el último tercio del siglo XIX, tras la Segunda Guerra Carlista, Antonio Cánovas del Castillo suspendió los fueros. Con anterioridad, varios autores habían conectado el presente y futuro del euskera a los fueros, entre otros Juan Ignazio Iztueta (1767-1845), quien en *Guipuzcoaco provinciare condaira edo historia* (1847) declaró que “Euscarra ill esquiero Fueroac ez dira bicico; banan Euscarra bici bada, Fueroac piztuko dira” (si el euskera se muere los fueros no sobrevivirán; pero si el euskera ha de vivir, los fueros renacerán) (Madariaga 159). En este sentido, no es de extrañar que en 1876 emergiera un movimiento a favor del euskera y la cultura vasca conocido como *Pizkundea*, similar al *Renaixença* catalán y al *Rexurdimento*.

While the origins of Basque literature in Euskara were linked to the ecclesiastical world and religious education, from the nineteenth century on it began to change with the introduction of new genres such as the novel (Mitxelena 141). Although only five novels were written in the language during that century (Lasagabaster 1981: 348), this was still a groundbreaking development because it paved the way for other tendencies to emerge. Still, literature in Euskara did not become an autonomous activity until the mid-twentieth century.

One of the forerunners of the novel in Euskara was *Peru Abarka* by Juan Antonio Mogel (1745-1804), completed in 1802 yet not published until 1880. This work is based on a dialogue between Peru Abarka himself and Maisu Juan, and is written with a clear goal in mind: to convince enlightened Basque scholars of the clarity and value of Euskara. Two other works should also be mentioned: *Piarres Adame* (1888) by Jean Baptiste Elizamburu (1828-1891), published in serial form in the republican journals *La Nivelle* and *Le Réveil Basque*, as well as in *Bein da betiko* (1893), edited by Resurrección María de Azkue; and *Ipuin onak* (1804) by Bizenta Mogel (1782-1854), an adaptation of Aesop's fables and the first work in Euskara published by a woman.

During the last third of the nineteenth century, following the Second Carlist War (1873-1876), the Spanish Prime Minister Antonio Cánovas del Castillo abolished the *fueros* (a body of law guaranteeing regional rights and privileges). Prior to this, numerous authors had connected the present and future of Euskara to the *fueros*. One of them, Juan Ignazio Iztueta (1767-1845), declared in his *Guipuzcoaco provinciare condaira edo historia* (1847) that, “Euscarra ill esquiero Fueroac ez dira bicico; banan Euscarra bici bada, Fueroac piztuko dira” (if Euskara dies, the *fueros* will not live; but if Euskara lives, the *fueros* will be resurrected) (Madariaga 159). In this regard, it is hardly surprising that in 1876 a pro-Euskara



Karmelo Etxegarai, Arturo Kanpion, Julio Urkijo, Txomin Agirre, Serapio Mujika eta Juan Carlos Gerra



Horren harira, zenbait literatur ekitaldi antolatzen hasi ziren, besteak beste *Euskal Jaiak* delakoak –Donostian izan ziren lehen aldiz, 1883an– 1851ean Antonie d'Abbadiek Euskal Herri kontinentalean antolaturiko eta 1879an Euskal Herri penintsularrean izandako Lore Jokoena jarraipen. Era berean, garai horretan denetariko argitalpenek ikusi zuten argia, euskarazko hezkuntza instituzionalizatzeko urratsak eman ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Hizkuntzako Katedra sortu zuen (1888), eta lehen ikastolak ireki zituzten.

Une honetan eta Lore Jokoena babesean, historia eta elezaharra uztartzen zituen euskarazko narratiba garatu zen. Walter Scott eskoziarraren nobelei jarraituz, Francisco Navarro Villosladak, Juan Venancio Araquistainek, Jose M. Goizuetak zein Vicente de Aranak gazteleraz idatziriko nobela historiko-errromantikoa eredu zuen narratiba horrek. Testuinguru horretan argitaratu zuten atalka, 1898tik aurrera, euskarazko lehen nobela: Domingo Agirreren (1864-1920) *Auñemendiko lorea*. Adalbaldo dukearen emazte den Riktrudis emakume kristauaren historia azaltzen du lanak, kristaua ez den buruzagi euskaldun bat, Portun, atzetik duena.

XIX. mendearren azken hamarkadan euskal politikagintzan eragin handia izango zuen planteamendua agertu zen: euskal nazionalismoa, mugimendu foralistaren lekukoa hartuko zuena. 1893an Sabino Arana Goirik (1865-1903) aldarrikatu zuen, “Euzko tarren aberria Euzkadi da”. Une horretatik aurrera euskarazko literaturaren helburu nagusia Euskal Nazioaren oinarriak ezartzea eta sustatzea izango zen.

Nazionalismoaren planteamenduetan eragin handia izan zuten XX. mende hasieran jazotako aldaketek eta gertaerek: industrializazioak –Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere– populazioaren hazkundeak, Partido Socialista Obrero Español-aren agerpenak Bilbon (1879). Alde batetik, industrializazio azkarrak eragindako ekonomiaren egoera ezin hobeak eragin baikorra izan euskal kulturaren hainbat arlotan, hala nola

mento gallego. Al hilo del espíritu romántico de los idealistas alemanes, la literatura escrita en euskera empezó a considerarse reflejo del alma vasca, siendo su objetivo proteger y promover la lengua. Por lo mismo, se empezaron a organizar varios actos literarios como las denominadas *Euskal Jaiak* –las mismas tuvieron lugar por primera vez en San Sebastián, en 1883– recogiendo el testigo de los *Lore Jokoak* celebrados en 1851 en el País Vasco continental de la mano de Antoine d'Abbadie y en 1879 en el País Vasco peninsular. Por otra parte, en ese mismo momento vieron la luz todo tipo de publicaciones, se dieron pasos hacia la institucionalización de la enseñanza en euskera, la Diputación Foral de Vizcaya creó la Cátedra de Lengua Vasca (1888), y las primeras ikastolas abrieron sus puertas.

Por estas fechas y bajo el auspicio de los *Lore Jokoak* empezó a desarrollarse una literatura en euskería que combinó historia y leyenda. Dicha literatura tenía como referente la literatura en castellano de autores como Francisco Navarro Villoslada, Juan Venancio Araquistain, José María Goizueta y Vicente de Arana, la cual a su vez bebió de la novela históricoromántica elaborada entre otros por el autor escocés Walter Scott. En este momento, a partir de 1898 concretamente, empezó a publicarse por entregas la primera novela en euskera: *Auñemendiko lorea* de Domingo Agirre (1864-1920). Dicha obra se centra en la historia de Rictrudis, la esposa cristiana del duque Adabaldo, que se ve cortejada por el jefe vasco no cristiano Portun.

A finales del siglo XIX apareció un planteamiento que tendría gran influencia en el devenir de la política vasca: el nacionalismo vasco, que tomó el testigo del movimiento foralista. En 1893, Sabino Arana Goiri (1865-1903) manifestó que “Euzko tarren aberria Euzkadi da” (la patria de los vascos es Euzkadi). A partir de este momento la principal función de la literatura vasca sería la de asentar y promover las bases de la Nación Vasca.

and Basque culture movement known as *Pizkunde* emerged, in a similar way to that of the Catalan *Renaixença* and the Galician *Rexurdimento*. Following the Romantic spirit of the German idealists, literature written in Euskara came to be considered as representative of the Basque soul, and its goal was to protect and promote the language. For that reason, different literary acts were organised, such as the so-called *Euskal Jaiak* (Basque Festivals) held for the first time in Donostia-San Sebastián in 1883. These were succeeded by the *Lore Jokoak* (literally, Floral Games), which were held for the first time in the continental Basque Country in 1851 (organised by Antoine d'Abbadie) and the peninsular Basque Country in 1879. Meanwhile, at the same time all kinds of publications emerged, steps were taken towards the institutionalisation of schooling in Euskara, the provincial council of Bizkaia created the first Chair in the Basque Language (1888), and the first *ikastolas* (schools where instruction is in Euskara) opened their doors.

Around this time, and as part of the *Lore Jokoak*, a literature in Euskara began to emerge which combined history and legend. This literature took as a reference point literature in Spanish by authors like Francisco Navarro Villoslada, Juan Venancio Araquistain, José M. Goizueta and Vicente de Arana, which in turn had been inspired by the romantic historical novels written by (among others) the Scottish author Walter Scott. At this moment, specifically after 1898, the first novel in Euskara was published in serial form: *Auñemendiko lorea* by Domingo Agirre (1864-1920). This work centred on the tale of Rictrude, the Christian wife of Duke Adalbald, who was wooed by the non-Christian Basque chief Portun.

At the close of the nineteenth century a concept emerged that would have a major influence in transforming Basque politics: Basque nationalism, which replaced foralism (the movement to seek reinstatement of the *fueros*). In 1893 Sabino Arana Goiri

Guda zibilak eragin suntsigarria izan zuen euskal letretan. Gerra garaian nobela bakarrak ikusi zuen argia: Tomas Agirre “Barrensoro”ren (1898-1982) Uztaro (1937), gai aldetik hura ere kostunbrista.



Sorne Unzueta

euskal filologian (R. M. de Azkuek eta Julio de Urquijok rol garantzitsua jokatu zuten; Urquijok *Revista Internacional de Estudios Vascos, R.I.E.V.* sortu zuen 1907an), musikan, arkeologian zein etnografian (Telesforo de Aranzadi, J. M. Barandiaran). Euskal ikasketak balioztatu zitzakeen unibertsitaterik ez zegoen, ordea. Behar horri erantzuteko asmoz Euskal Ikasketen Lehen Kongresua antolatu zuten, baita Euso Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ere 1918an. Bestetik, egoera ekonomiko beraren eraginez euskararen eragin esparria murriztuz joan zen pixkanaka landaremuaren “berezko” ezaugarri bihurtzeraino, hirietan eta industri-guneetan gaztelera nagusituz zihoa bitartean. Zenbait intelektualek, Miguel de Unamunoak kasu, faktore sozio-ekonomikoak aintzat hartu ez eta euskararen beherakada azaltzeko orduan, hura mundu modernoaren beharrei aurre egiteko gai ez zela argudiatu zuten. Nazionalismoak ere industrializazioak eragindako polarizazioari (landa-eremu / hiria, euskara / erdara, tradizioa / modernitatea) etekin aterako zion bere modura. Domingo Agirreren nobela kostunbristek, *Kresala* eta *Garoa*, ezin hobeto islatzen dute nazionalismoaren diskursoa, euskal bizi-modu jatorraren sinbolo diren kokaguneei (itsasoa eta baseria, hurrenez hurren) kutsagarritzat jotzen diren elementuak (hiria) kontrajartzen zaizkien aldetik. Ildo beretik jo zuten orduko hainbat egileren lanek: **José Manuel Etxeitaren** (1842-1915) *Josecho* (1909) eta *Jayoterri maitia* (1910); **R. M. Azkueren Ardi galdua** (1918); Jean Barbierren *Piarres* (1926-29); Pierre Lhanderen (1857-1957) *Miren Txu* (1914) eta *Yolanda* (1921), besteak beste. Aipatzekoak dira orduko zenbait emakumek, hala nola **Rosario Artolak** (1869-1950), **Tene Mujikak** (1888-1981), **Julene Azpeitiak** (1988-1980), **Katarine Eleizegik** (1889-1963) zein **Sorne Unzueta** (1900-2005), euskal literaturari egindako ekarpena.

Guda zibilak eragin suntsigarria izan zuen euskal letretan. Gerra garaian nobela bakarrak ikusi zuen argia: **Tomas Agirre “Barrensoro”ren** (1898-1982)


En el planteamiento del nacionalismo vasco tuvieron gran influencia varios acontecimientos que tuvieron lugar a comienzos del siglo XX: la industrialización –principalmente en Vizcaya y Guipúzcoa– el crecimiento de la población, la creación del Partido Socialista Obrero Español en Bilbao (1879). Por una parte, el impacto positivo que la rápida industrialización tuvo en la economía vasca propicio que la cultura vasca floreciera en varios ámbitos, como en el de la filología (Resurrección María de Azkue y Julio de Urquijo jugaron un papel importante en la misma; Urquijo creó la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, R.I.E.V. en 1907), la música, la arqueología o la etnografía (Telésforo de Aranzadi, Joxe Miguel Barandiaran). Al no haber una universidad que pudiera acreditar los estudios vascos, se decidió organizar el Primer Congreso de Estudios Vascos al cual siguieron la creación de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia en 1918. Por otra parte, la propia situación económica propicio que el euskera fuera perdiendo terreno poco a poco llegando a convertirse en característica “propia” de la zona rural, mientras que en los núcleos urbanos e industrializados el castellano pasó a ser la lengua dominante. Algunos intelectuales como Miguel de Unamuno, ignorando los factores económicos que causaron el decrecimiento del euskera, llegaron a decir que dicha lengua no era capaz de responder a las necesidades del mundo moderno. El propio nacionalismo supo sacar partido a la polarización generada por la industrialización (zonas rurales vs. núcleos urbanos, euskera vs. castellano, tradición vs. modernidad). Las novelas costumbristas de Domingo Agirre, *Kresala* y *Garoa*, son un buen ejemplo del discurso nacionalista del momento: a los espacios símbolo del estilo de vida “puramente” vasco (el mar y el caserío, respectivamente) se contraponen espacios considerados perniciosos y contaminados (la ciudad). Las obras de otros autores de la época presentan las mismas características: *Josecho*

(1865-1903) declared that, “Euzko tarren aberria Euzkadi da” (the homeland of the Basques is Euzkadi). From this moment on, the main function of Basque literature would be to secure and promote the foundations of the Basque nation.

The concept of Basque nationalism was influenced greatly by several events which took place during the early twentieth century: for example, industrialisation (mainly in Bizkaia and Gipuzkoa), population growth and the founding of the Partido Socialista Obrero Español (PSOE, Spanish Socialist Workers' Party) in Bilbao (1879). On the one hand, the positive impact of rapid industrialisation on the Basque economy resulted in a flourishing of Basque culture in many aspects: for example, philology (R. M. de Azkue and Julio de Urquijo played an important role in this, with Urquijo founding the *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV, International Journal of Basque Studies) in 1907, music, archaeology and ethnography (Telésforo de Aranzadi, J. M. Barandiaran). Because there was no university to accredit Basque Studies, the First Basque Studies Conference was held, followed by the creation of Eusko Ikaskuntza (the Basque Studies Society) and Euskaltzaindia (the Royal Academy of the Basque Language) in 1918. On the other hand, the economic situation itself contributed to a gradual decline in Euskara so that in time it became associated with being a “more typical” feature of rural areas. Meanwhile, in urban and industrialised areas Spanish became the dominant language. Some intellectuals, like Miguel de Unamuno, ignored the economic factors which had caused the decline of Euskara and even argued that it was a language unsuited to the demands of the modern world. Nationalism itself understood how to make the most of the polarisation created by industrialisation (rural areas vs. urban areas, Basque vs. Spanish, tradition vs. modernity). The costumbrista novels of Domingo Agirre, *Kresala* and *Garoa*, are good examples of the nationalist discourse at



Martín Ugalde



Uztaro (1937), gai aldetik hura ere kostunbrista. **Domingo Arrutiren** (1897-1968) *Loretxo* (1937), atalka argitaratua euskarazko lehen egunkarian, *Eguna* (1937), amaitu gabe geratu zen. Gatazkan bizia galdu ez zutenenetik askok erbestera jo zuten eta erbestean, hain zuzen, euskal literaturak bultzada handia jaso zuen. Penintsulan, errepresioaren ondorioz, zaila zen euskaraz ezer argitaratzea. Erbesteko eragileen artean nabarmentzekoak dira Ekin argitaletxea, 1942an Buenos Airesen sortua, eta *Euzko Gogoa* aldizkaria (1950-1955 / 1956-1959), Jokin Zaitegik zuzendua Guatamatik, gerora Miarritza aldatu zena. Ekimen bitartez ikusi zuten argia gerra osteko lehen nobelek, **Jon Andoni Irazustaren** (1881-1952) *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950), biak ala biak Guda Zibilaren testuinguruan kokatuta. Irazustaren nobelak XX. mende hasierako joeraren jarraipen dira, hots, ideologia esentzialistaren isla dira, tradizioaren eta erlijioaren aldekoak. Maria Jose Olaizregiren aburuz, askozaz berritzaleagoa da **Jose Eizagirreren** (1881-1948) *Ekaitzpean* (1948), karlisten (nacionalen aldeko) eta nazionalisten (Errepublikaren aldeko) artean zeuden kontraesanak azaltzen dituen aldetik. Aipatzeko da ere **Sebastian Salaberriaren** (1915-2003) *Neronek tirako nizkin* (1964), gerra lehen pertsonan kontatzen duen lan autobiografikoa. **Martin Ugalde** (1921-2004) inork baino hobeto azaldu zuen errepresio politikoak eta erbesteak euskal herritar askorengan izan zuen eragin suntsigarria. Egileak berak hiru erbestaldiri aurre egin zien. Ugalderen lanen artean nabarmentzekoa da *Ilitzalleak* (1961) gerra zibilaren eta gerraostearen gogortasuna azaltzen duen ipuin bilduma, eta *Itzuleria baten istorioa* (1989) zein *Pedrotxo* (1993) nobelak. Lehengonok erbestean den euskal familia baten Euskal Herrira itzultzeoko ahalegin antzuak azaltzen ditu; bigarrenak, gerrak ekari zuen giza hondamena eta gerraosteko errepresio frankista ditu aipagai. Gerra ostean Euskal Herri peninsularrean argitaratu zuten lehen nobela **Jon Etxaideren** (1920-1998)

(1909) y *Jayoterri maitia* (1910) de **José Manuel Etxeita** (1842-1915); *Ardi galdua* (1918) de **Resurrección María Azkue**; *Piarres* (1926-29) de **Jean Barbier**; *Mirentxu* (1914) y *Yolanda* (1921) de **Pierre Lhande** (1857-1957). Así mismo, es de reseñar la aportación que algunas mujeres escritoras, así como **Rosario Artola** (1869-1950), **Tene Mujika** (1888-1981), **Julene Azpeitia** (1888-1980), **Katarine Eleizegi** (1889-1963) y **Sorne Unzueta** (1900-2005), hicieron a la literatura de la época.

La Guerra Civil tuvo un efecto devastador en las letras vascas. Durante la contienda, una sola novela vio la luz: *Uztaro* (1937) de **Tomas Agirre "Barrensooro"** (1898-1982), de temática costumbrista. *Loretxo* (1937) de **Domingo Arruti** (1897-1968), publicada por entregas en el primer periódico en euskera, *Eguna* (1937), quedó inconclusa. Muchos de los supervivientes de la guerra fueron al exilio y desde allí la literatura en euskera recibió un gran impulso. Mientras tanto en la península, debido a la represión, fue difícil publicar en euskera. Entre los agentes del exilio cabe mencionar a la editorial Ekin, creada en 1942 en Buenos Aires, y la revista *Euzko Gogoa* (1950-1955 / 1956-1959), dirigida por Jokin Zaitegi desde Guatemala (posteriormente se trasladó a Biarritz).

A través de Ekin vieron la luz las primeras novelas de posguerra, *Joanixio* (1946) y *Bizia garratza da* (1950), ambas escritas por **Jon Andoni Irazusta** (1881-1952) y ambas basadas en la guerra. Las novelas de Irazusta son un reflejo de la sensibilidad de comienzos del siglo XX, es decir, se hacen eco de la ideología esencialista, impulsora de la tradición y del sentimiento religioso.

En opinión de María José Olaziregi, resulta mucho más novedosa *Ekaitzpean* (1948) de **Jose Eizagirre** (1881-1948), en la medida en que muestra las contradicciones de ambos bandos, el de los carlistas (a favor de los rebeldes) y el de los nacionalistas (a favor de la República). Cabe mencionar *Neronek tirako nizkin* (1964) de **Sebastián Salaberria** (1915-2003), obra autobiográfica que narra la guerra en primera persona.

that time: with spaces symbolic of a “pure” Basque way of life (the sea and the farm, respectively) contrasted against spaces considered pernicious and contaminated (the city). Works by other authors during the same period reveal the same characteristics: *Josecho* (1909) and *Jayoterri maitia* (1910) by **José Manuel Etxeita** (1842-1915); *Ardi galdua* (1918) by **R. M. Azkue**; *Piarres* (1926-29) by **Jean Barbier**; and *Mirentxu* (1914) and *Yolanda* (1921) by **Pierre Lhande** (1857-1957). Likewise, the contribution of women authors to the literature of the era also stands out in works by **Rosario Artola** (1869-1950), **Tene Mujika** (1888-1981), **Julene Azpeitia** (1888-1980), **Katarine Eleizegi** (1889-1963) and **Sorne Unzueta** (1900-2005).

The Spanish Civil War (1936-39) had a devastating effect on Basque letters. Just one novel was published during the conflict: *Uztaro* (1937) by **Tomas Agirre "Barrensooro"** (1898-1982) –another example of a costumbrista work. *Loretxo* (1937), by Domingo Arruti (1897-1968), published in serial form in *Eguna* (the first newspaper in Euskara in the Basque Country), remained unfinished. Many survivors of the war went into exile and it was in exile that literature in Euskara received a significant boost. Meanwhile, in the peninsula, it was difficult to publish in Euskara because of state repression. The important agents in exile included the Ekin publishing house (founded in 1942 in Buenos Aires) and the journal *Euzko Gogoa* (1950-55 / 1956-59), edited by Jokin Zaitegi who was based in Guatemala (and who later moved to Biarritz).

The first novels of the post-Spanish Civil War era were published by Ekin: *Joanixio* (1946) and *Bizia garratza da* (1950). Both were written by **Jon Andoni Irazusta** (1881-1952) and both were based on the war. Irazusta’s novels reflect the prevalent feelings of the early twentieth century. In other words, they reflect an essentialist ideology which emphasised tradition and a religious sentiment. For Mari Jose Olaziregi,



Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi



Alos-Torrea (1950) izan zen, Juan Venancio Aranquistainen “Gau-illa” elezaharrean oinarritua. Etxai-derenak dira ere *Joanak joan* (1955), Pierre Topet Echahun poeta erromantikoaren bizitan oinarritua, eta *Gorrotoa lege* (1964), Erdi Aroan Euskal Herri penintsularrean gertaturiko bandoen arteko gudetan oinarritua. Bestetik, **Jose Antonio Loidik** (1916-1999) euskarazko lehen polizia-nobela idatzi zuen, *Ama-bost egun Urgainen* (1955).

1950eko hamarkadan euskal literatura jarduera autonomo bihurtu zen Euskal Herriko bizi modu sozi-kulturallean, “lege, funtzionamendu mekanismo eta helburu propioekin, bestelako jarduera linguistiko edo kulturaletik aparte” (Lasagabaster 1985: 427). Euskal literaturak Europan une horretan nagusi ziren literatur mugimenduekin bat egin zuen, eta bat-eģite horren adierazgarri izan zen itzulpenek literatur sistemana piztu zuten interesa. Aipatu hamarkadan euskal nobelak kostunbrismitik joera existentzialetarra jauzi egin zuen **Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren** (1929-2012) *Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) lanaren eskutik. *La Nauséeka* (1938) A. Roquentinen antzera, Leturiak, nobelako heroi gatzaktsua, giza-existentziaren zentzugabekeriaz idatziko du bere egunerokoan, eta existentialismoaren ardatz nagusien gainean –bakardadea, porrota, heriotza, erabakiak hartzeak eragiten duen ezinegongogoa egingo du. Jainkoaren existentziaren inguruaren ere arituko da, Leturiak ukatu egiten ez duena. Txillardegiren hurrengo nobelek ere, *Peru Leartzako* (1960) eta *Elsa Scheelen* (1969), existentialismoaren bidetik jo zuten.

Txillardegiren belaunaldi berekoa dugu **Jon Mirande** (1925-1972), eta hark bezala modernitatearen nondik norakoak azaldu zituen bere obra poetikoan zein bere narratiban, hala nola *Haur besoetakoa* (1970) nobela psikologikoan, 1959an idatzia eta 1970ean argitaratua, zein bera hil ostean kaleratu zuten *Gauaz parke batean* (1984) bildumako narrazioetan. *Haur besoetakoa* nobelaren gaiak, gizon heldu

Martín Ugalde (1921-2004) supo explicar mejor que nadie el efecto devastador que la represión política y el exilio tuvieron en muchos ciudadanos vascos. El propio autor tuvo que hacer frente a tres exilios. Entre las obras de Ugalde son de destacar el libro de narraciones *Ilitzalleak* (1961) que refleja la dureza de la guerra y la posguerra, así como las novelas *Itzulera baten istorioa* (1989) y *Pedrotxo* (1993). La primera muestra los esfuerzos inútiles de una familia vasca por regresar al País Vasco; la segunda analiza la destrucción humana causada por la guerra y la represión franquista de la posguerra.

Tras la guerra, la primera novela en ver la luz en el País Vasco peninsular fue *Alos-Torrea* (1950) de **Jon Etxaide** (1920-1998), basada en la leyenda "Gau-illa" de Juan Venancio Aranquistain. Al mismo autor debemos *Joanak joan* (1955), sobre la vida del poeta romántico Pierre Topet Echahun, y *Gorrotoa lege* (1964), reflejo de las guerras de bandos acontecidas en la Edad Media en el País Vasco peninsular. Por su parte, **Jose Antonio Loidi** (1916-1999) produjo la primera novela policiaca en euskera, *Amabost egun Urgain'en* (1955).

En la década de 1950 la literatura vasca pasó a ser una actividad autónoma dentro del ámbito socio-cultural del País Vasco, "con leyes, mecanismos de funcionamiento y objetivos propios, frente a otras actividades lingüísticas y culturales" (Lasagabaster 1985: 427). La literatura vasca se hizo eco de los principales movimientos literarios europeos del momento, y como resultado, la traducción al euskera de obras escritas en otras lenguas cobró un gran interés en el sistema literario vasco. En esta década, y de la mano de *Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) de **Jose Luis Álvarez Enparantza Txillardegi** (1929-2012), la novela vasca dejó el costumbrismo a un lado para dar paso al existencialismo. Al igual que Antoine Roquentin de *La Nausée* (1938), Leturia, el conflictivo héroe de la novela, escribe en su diario sobre el absurdo de la existencia humana, y reflexiona sobre los temas prin-

Ekaitzpearan (1948) by **Jose Eizagirre** (1881-1948) is a more ground-breaking work to the extent that it shows the contradictions on both sides: that of the Carlists (a traditionalist faction which supported the military insurgents against the Spanish Republic) and the nationalists (who supported the Republic). One should also mention *Neronek tirako nizkin* (1964) by **Sebastián Salaberria** (1915-2003), an autobiographical work which narrates the war in the first person.

Martín Ugalde (1921-2004) understood better than anyone the devastating effects that political repression and exile entailed for many Basques. The author himself had to go through three exiles. Among Ugalde's works, one should mention *Ilitzalleak* (1961)—which reflects the tough nature of the civil war and the post-war era— together with the novels *Itzulera baten istorioa* (1989) and *Pedrotxo* (1993). The former demonstrates the futile efforts of a Basque family to return to the Basque Country; the latter analyses the human destruction caused by the war and the Franco regime's repression in the post-war era. Following the civil war, the first novel published in the peninsular Basque Country was *Alos-Torrea* (1950) by Jon Etxaide (1920-1998), based on the legend "Gau-illa" by Juan Venancio Aranquistain. The same author was also responsible for *Joanak joan* (1955), about the life of romantic poet Pierre Topet Echahun, and *Gorrotoa lege* (1964), on the war of the factions (clans) during the Middle Ages in the peninsular Basque Country. Meanwhile, **Jose Antonio Loidi** (1916-1999) wrote the first detective novel in Euskara, *Amabost egun Urgain'en* (1955).

In the 1950s Basque literature became an autonomous activity within the socio-cultural life of the Basque Country "with its own laws, functioning mechanisms and objectives, as opposed to other linguistic and cultural activities" (Lasagabaster 1985: 427). Basque literature took note of the main European literary movements of the time, and as a result, translation into Euskara of works written in other



Gabriel Aresti



batetan eta bere haur besoetako gaztearen arteko harremana, Vladimir Nabokoven *Lolita* dakar gogora. Paradoxikoki, Mirandek ez zuen errusiarraren nobela irakurria *Haur besoetakoia* idatzi zuenean. Eduardo Gil Berak nobelaren gaztelaniazko itzulpenari idatzitako hitzaurrean esaten duen bezala, Mirandek Teokrito zein Virgilioren garaitik Mendebaldeko tradizioaren parte zen literatur motibo bati besterik ez zion heldu. Nazioarteari begira, 1960ko hamarkadak giza-mugimendu berrien agerpena eta Hirugarren Munduko herrialdeetatik bultzaturiko iraultza ereduen hedapena ekarri zuen. Penintsulako Euskal Herrian bertan, nazionalismoaren barruan EAJk eta ETAk lortu zuten nagusitasuna aipatu beharko genuke (Chueca 2000: 398). Bestetik, herrialdearen hazkunde ekonomikoa eta industriala indartuz joan zen, eta horrek kultur-proposamen berriak martxan jartzea ahalbidetu zuen. Proposamenok kultura eta arte modernoa bultzatzea zuten helburu, eta haien bultzatzai-letako bi izan ziren **Gabriel Aresti** (1933-1975) poeta bilbotarra eta **Jorge Oteiza** (1908-2003) eskultorea. Oteizak Gaur, Danok, Emen eta Orain taldeetan bildutako beste artistekin batera, Euskal Eskola sortu zuen 1966an. Aresti eta Oteizarekin batera, aipatzekoa da **Koldo Mitxelena** (1915-1987) linguista. Mitxelenak Euskaltzaindiak bultzaturiko euskara batua sortearen prozesua gidatu zuen. Ezin ahaztu 1960ko hamarkadan, besteak beste, lehen Euskal Liburu Azoka antolatu zutela Durangon (1965), eta euskal kantu modernoa bultzatu zuen *Ez dok amairu* (1965-1972) taldeak orduan hasi zuela bere ibilibidea. Literaturaren alorrean, euskarazko liburuen ekoizpenak bultzada handia jaso zuen argitaltexe agertu berrien eskuikitik: Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973). Ekoizpen horren barruan, nobelen kopurua handitu egin zen (urreko hamarkadan argitaraturikoaren halako bi), eta lehen aldiz euskarazko nobelak garaiko irakurleen aurreikuspenekin bat egin zuen. Urte horietan *nobela soziala* agertu zen, besteak

cipales del existencialismo –la soledad, el fracaso, la muerte, la angustia que provoca la toma de decisiones. También debatirá sobre la existencia de Dios, cosa que Leturia no niega. Las siguientes novelas de Txillardegi, *Peru Leartzako* (1960) y *Elsa Scheelen* (1969), también optaron por el existencialismo.

Jon Mirande (1925-1972) perteneció a la misma generación de Txillardegi, y al igual que éste analizó los derroteros de la modernidad tanto en su obra poética como en su narrativa. A esta última pertenecen la novela psicológica *Haur besoetakoa* (1970), escrita en 1959 y publicada en 1970, así como el libro de narraciones *Gauaz parke batean* (1984) publicado tras la muerte del autor. El tema central de *Haur besoetakoa*, la relación entre un hombre maduro y su joven ahijada, trae a la memoria la novela *Lolita* de Vladimir Nabokov. Paradójicamente, Mirande no había leído la novela del autor ruso cuando compuso *Haur besoetakoa*. Según afirma Eduardo Gil Bera en el prólogo a la traducción al castellano de la novela, Mirande simplemente se hizo eco de un motivo que ha sido parte de la tradición occidental desde de la época de Teócrito y Virgilio.

La década de 1960, a nivel internacional, fue testigo de la aparición de nuevos movimientos sociales y revoluciones impulsados desde países del denominado Tercer Mundo. En el País Vasco peninsular, es de destacar la popularidad obtenida por el Partido Nacionalista Vasco (PNV) y ETA dentro del mundo nacionalista (Chueca 398). Por otra parte, el continuo crecimiento económico e industrial hizo posible que nuevas propuestas culturales se pusieran en marcha. Dichas propuestas tenían como objetivo impulsar la cultura y el arte moderno vasco. Dos de las figuras más relevantes de esta época fueron el poeta bilbaíno **Gabriel Aresti** (1933-1975) y el escultor **Jorge Oteiza** (1908-2003). Oteiza, junto a otros artistas reunidos en torno a los grupos Gaur, Danok, Emen y Orain, creó la Escuela Vasca en 1966. Otro nombre a destacar es el del lingüista **Koldo Mitxelena** (1915-

languages raised much interest in the Basque literary system. During this decade, as a result of *Leturiariaren egunkari ezkutua* (1957) by **Jose Luis Álvarez Enparantza** or “**Txillardegi**” (1929-2012), the Basque novel left *costumbrismo* behind to embrace existentialism. In the same way as A. Roquentin in *La Nausée* (1938), Leturia, the conflictive hero of the novel, writes in his diary about the absurdity of human existence. He also reflects on the main themes of existentialism: loneliness, failure, death, and the fear resulting from taking decisions. He also speculates on the existence of God, something Leturia does not deny. Txillardegi's next novels, *Peru Leartzako* (1960) and *Elsa Scheelen* (1969), also relied on existentialism.

Jon Mirande (1925-1972) belonged to the same generation as Txillardegi, and in a similar way to him analysed modernity's failings both in his poetic and narrative work. Examples of the latter are the psychological novel *Haur besoetakoa* (1970)—which was written in 1959 yet not published for a decade—and the posthumously published book of short stories *Gauaz parke batean* (1984). The main theme of *Haur besoetakoa*, the relationship between an adult man and his young goddaughter, brings to mind Vladimir Nabokov's novel *Lolita*. Paradoxically, Mirande had not read the Russian author's novel when he wrote *Haur besoetakoa*. According to Eduardo Gil Bera in the prologue to the Spanish translation of the novel, Mirande simply made use of a motif which had been part of the Western tradition since the time of Theocritus and Virgil.

At an international level the 1960s witnessed the emergence of new social and revolutionary movements originating in so-called Third World countries. In the peninsular Basque Country, the Partido Nacionalista Vasco-Eusko Alderdi Jeltzalea (PNV-EAJ, Basque Nationalist Party) and ETA remained popular among the nationalist community (Chueca 398). Meanwhile, continued industrial and economic



Ramon Saizarbitoria



beste **Xabier Gereñok** (1924-2011), **Txomin Peillenek** (1932) eta **Xabier Amurizak** (1941) landutakoa. Nobela sozialarekin batera, bestelako nobela eredu bat agertu zen euskal letron panoraman, alegorikotzat jo genezakeen nobela mota, orduko zentsurari izkin egin nahi ziona. Nobela mota horrek Hegemerikako errealsismo majikoaren ekarpenak bere egin zituen. Orduko da **Anjel Lertxundiren** (1948) lehen lana, *Hunik arrats artean* (1970) ipuin bilduma. Bertan lehen aldiz agertu zen Urturi herria (Euskal Herriaren sinbolo argia), *Ajea du Urturik* (1971) nobelaren kokagune izango zena. Azken horretan Urturin jazotako uholdeak herritarrengan sorturiko ezinegona azaltzen zaigu. Behin eta berriro azaltzen den armiarma sarearen irudiak garai hartan euskal herritarrek bizi zuten jazarpenaren adierazgarri da. Errealismo majikoaren oihartzuna nabarmena da ere **Mikel Zarateren** (1933-1979) *Haurgintza minetan* (1973) nobela alegorikoan zein **Joan Mari Irigoiernen** (1948) *Oilarren promesa* (1976) lanean. Biek ala biek penintsulako Euskal Herriak bizi zuen erreresio politikoa salatzen dute.

1969an argitaraturiko **Ramon Saizarbitoriaaren** (1944) *Egunero hasten delako* nobelak eredu experimentalistak ekarri zituen euskal literaturara. Tartekatzen doazen bi plano narratibo independetan antolatua, *Egunero hasten delakok* abortatu nahi duen ikasle gazte baten istorioa eta tren geltoki baten eta telefono zentral baten artean pertsonaia ezezagun baten eta beste pertsonaia baten edo batzuen artean gertatzen den elkarritzeta azaltzen ditu. Saizarbitoriaaren bigarren nobela, *100 metro* (1976), egilearen lanik itzulienda da eta 1985ean zinemara egokituz Alfonso Ungriak. *Ehun metron* ere narrazioa hainbat planotan antolatuta dago, baina kasu honeitan zinema teknikak jarraitzen ditu egileak gertaeraek azaltzeko. Hari nagusiak ETAko kide batek Donostiako Konstituzio plazan poliziak tiroz hil aurretik egindako azken ehun metroak azaltzen ditu. Nobelak Frankenren diktaduraren azken urteetako giroa azaltzen du,

1987). Mitxelena condujo el proceso impulsado por Euskaltzaindia para la creación del euskera batua o unificado. No hay que olvidar que en esta misma década tuvo lugar, entre otros, la primera Feria del Libro Vasco en Durango (1965). Así mismo, el grupo *Ez dok amairu* (1965-1972), impulsor de la nueva canción vasca, inició su andadura por estas fechas. En cuanto a la literatura, la producción de libros en euskera recibió un fuerte empujón gracias a la labor de nuevas editoriales: Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973). Dentro de esa producción, el número de novelas fue notable (se publicaron el doble de títulos que en la década anterior), y por primera vez la novela en euskera cumplió con las expectativas de los lectores. En esta época aparecieron las primeras novelas sociales de la mano de autores como **Xabier Gereño** (1924-2011), **Txomin Peillen** (1932) y **Xabier Amuriza** (1941).

Junto a la novela social, otro género hizo aparición en la escena literaria vasca. Se trataba de un tipo de novela que podríamos denominar alegórica, la cual quiso dar esquinazo a la censura. Este tipo de novela hizo suyas las principales características del realismo mágico sudamericano. De esta época data la primera obra de **Anjel Lertxundi** (1948), el libro de narraciones *Hunik arrats artean* (1970). En el mismo apareció por primera vez el pueblo alegórico Urturi (claro símbolo del País Vasco), en el cual se desarrollaría la acción de la novela del mismo autor *Ajea du Urturik* (1971). *Ajea du Urturik* muestra la angustia de los ciudadanos de Urturi tras unas inundaciones. En la novela aparece la imagen recurrente de una tela de araña, símbolo de la represión que estaban padeciendo los ciudadanos vascos. La influencia del realismo mágico es notable en la novela alegórica *Haurgintza minetan* (1973) de **Mikel Zarate** (1933-1979) y en *Oilarraaren promesa* (1976) de **Joan Mari Irigoien** (1948). Ambos trabajos denuncian la represión política en el País Vasco peninsular.

